


Nolakoa da hiri bat? Nolakoak dira hiria osatzen duten eraikinak? Arretaz begiratzuz gero, pertsonen modukoak direla esan dezakegu; horietako bakoitzak bere nortasuna eta bere aurpegia dauka. Hain zuzen, horretaz ohartuko gara jolas honekin: hiriko aurpegiak behatuko ditugu, eta, ondoren, haurraren beraren ikuspegitik abiatuta, aurpegi berriak sortuko ditugu.




Jolas edo ariketa horren helburua haurrak bere eguneroko ingurunea behatzen ikastea da, azkenik haren interpretazioa egin dezan. Horretarako, aurpegiak bilatuko dizkiete eraikinei: non daude begiak eta ahoa? Hori sudur bat da? Eta, etxebizitzan atzetik ageri diren zuhaitz horiek, ez al dira ilearen antzekoak? Gure inguruko aurpegiak eta elementu arkitektonikoak antzeman ondoren, horien “bilduma” besterik ez dugu egin behar. Jarraian, gus-tukoen ditugun elementuak edo zatiak aukera ditzakegu eta horiekin geure aurpegiak sor ditzakegu, hiri berri bat sortzeko. Ariketak bost zati ditu:

Behaketa: hurbileko ingurunea behatzear datza. Nolakoak dira eraikinak? Zer elementuk osatzen dituzte? Zer dago horien inguruan? Zuhaitz, kale-argi, zubi edo semaforo asko daude?

Erregistroa/azterketa: zer eraikinek dituzte begiak, sudurra edo ahoa? Beste zer elementuk balio dezakete, halaber, sudurra izateko? Loreontzi horrek ez al dauka bibote baten itxura? Eta, beharrezkoa al da fatxada batek atea edukitzea? Aurpegi batzuk leihoeekin soilik osatzen dira, beste batzuk, berriz, ate bat edo gehiago dituzte. Badaude leihorik ez duten fatxadak, baina graffitiak edo aire girotuen makinak dituzte; ikusten al dituzue horien begiak ere?

Hautaketa/sailkapena: aurpegiak identifikatu ondoren, aurkitutako elementuen hautaketa bat egiten da eta sailkatu egiten dira, begi, aho, bibote, ile, orbain eta abarren gisa erabiltzeko.



Teknika:

1. Behaketa fasea banaka nahiz taldean egin daiteke, hurbilen dagoen ingurunetik abiatuta: nolakoak dira ikastetxearen inguruan dauden eraikinak? Zer eraikinekin topatzen da haurra ikastetxera bidean? Beste aukera bat taldeak hirian ibilaldi bat egitea da, eta hiria behatzea.
2. Erregistro eta azterketa fasean, taldean lan eginez gero, haur bakoitzak gehien gustatu zaizkion aurpegien argazki bat edo bi ateratzea gomendatzen da. Horrela, aurpegien artxibo handi bat edukiko da. Ezin bada argazkirik atera, inprima daitezkeen eta hurrengo fasean erabili daitezkeen zenbait fatxada gehituko ditugu.
3. Hautaketa eta sailkapena egiteko, argazkiak inprimatuko dira; horretarako, 6 edo 9 argazki inprimatzea iradokitzen dugu DINA4 orri bakoitzeko. Koloretan nahiz zuri-beltzean inprima daitezke argazkiak. Une horretan, 4 edo 5 hurreko taldeak sor daitezke, elementuak (begiak, sudurra, ahoa, etab.) beren gustuen arabera sailkatzeko.
Sorkuntza faserako, haur bakoitzak kutxa bat egitea iradokitzen da, hots, 4 fatxada. Fatxada bakoitza osatzeko, aukeratutako kutxaren ingurua marraztuko da koloretako kartoi mehe batean. Gero, aurpegi bat osatzen duten elementuak gehituko zaizkio. Argazkiak zuri-beltzean inprimatu badira, fatxadako elementuak margotu daitezke kartoi mehean itsatsi baino lehen. Ondoren, fatxadak moztuko dira eta kutxan itsatsiko dira. Fase hori elementuen hautaketa egin duten talde berberak egin dezake.
5. Haur bakoitzak bere kutxa amaitu ondoren, hiri bat osa daiteke.

Materialak: argazki kamera (ez da nahitaezkoa), ateratako argazkiak inprimatuta (6 edo 9 DINA4 orriko) edo artikulua argazki galeria, koloretako kartoi meheak, kutxa txikiak (arrozaren, kafearen, gailetan eta abarren kutxak), itsasgarria, guraizeak, errotuladoreak edo koloretako lapitzak.

Adina: ariketa hori urratsak gehituz edo kenduz molda daiteke, irakaslearen iritzia arabera, bost zein hamar urteko haurrentzako egokia izan dadin. Gazteenentzat, jolasa aurpegien collage bat izan daiteke soilik. Kasu horretan, argazki handiagoak erabiltzea gomendatzen da konposizioa egiteko (aurpegi bakar bat) kutxa ertain edo handi batean (zerealena), eta moztutako gisa erabil daiteke. Ondoren, haurrak hiria osatzen duten eraikin gisa jolas dezakete.



Amag